

Txupin beltza izango dugu eta asteazkenean, txosnak itxita, ez dugu ekitaldirik egingo.

Konpartsak zigortuz, debekuak ezarriz, parte-hartzea eragotziz... Jaiak arriskuan dira.

29 konpartsekin batera, jaiarekin, disfrutatzen, koloretako Bilbori eutsiko diogu.



2010eko Aste Nagusia

Aste Nagusia defendatuz! Gure jai eredua defendatuz!

Aurtengo Aste Nagusia berezia izango da. Azken urteotan azaldu dugun bezala Bilbon ditugun jaiak, auzoetakoak zein Bilbokoak, galtzeko arriskuan gaude.



Eta egia da ez dagoela eraso zuzen eta argi bat, hau da, instituzioetatik ez dira atera prentsaurreko batean zera esaten: "Egun ezagutzen ditugun jaiak mapatik ezabatzen goaz", baina denbora eta praktikaren poderioz hori da aurreikusten dugun irudia.

1978an herriaren presioaren ondorioz, udalak eta herritar

mugimenduak Jai Batzorde Misto osatu zuten. Helburua argia zen: jai partehartzaileak diseinatzea Bilborako. Eta betebeteen asmatu zen. Horregatik daukagu egun ezagutzen dugun Aste Nagusia.

Kezkagarria iruditzen zaigu Batzorde Misto horren egunerokotasunean gertatzen ari dena: Bilboko Konpartsen lana

eta proposamenak ez dira aintzat hartzen. Adibide zerrenda luzea dugu azken urte hauetan gertatutakoaren inguruan: jai egunen datak gure oneritzirik gabe aldatzen dituzte, bilerak gurekin kontatu gabe jartzen dira, aktak ez dira pasatzen, behar dugun informazio publikoa ez da gure eskuetan ipintzen, batzordea elkarriketa gune bezala erabili

beharrean udal arlo ezberdinen artean zorabiatzen gaituzte, programazioaren inguruan ditugun proposamenak ez dira kontuan hartzen, inauteriak bikoiztu egin dira, prentsaren bitartez jakin izan ditugu jaien inguruko berri asko, konpartsak zigortu egiten dituzte, debekuak ezartzen dituzte eta abar eta abar. Giro baztertzailerik horretan oso deseroso egiten zaigu

ilusioz lan egitea eta gure proposamenak aurrera eramatea.

Eta ikasturte honetan alarma piztera behartu gaituzte: horrela jarraituz gero, udalak herri jaiak suntsituko dituelako. Gure ardura da hori gerta ez dadin, gure lan esparrua delako, urte osoan zehar Bilboko kulturari gure ekarpena eskaintzen diogulako eta ez guk bakarrik, Bilbotar askorekin baizik.

Eta egoera hori gelditzeko aurtun txupin beltza izango dugu, irudikatzen zer gerta litekeen gure partehartze eta kolorerik gabeko Bilbo iluna lortuko balute. Eta erabaki gogorra hartu dugu, gustoko ez duguna, baina helburu berdinarekin: irudikatzea konpartsik gabeko Aste Nagusia. Egun batez, 24 orduz, asteazkeneko txupinetik osteguneko txupinera, txosnak itxita egongo dira eta konpartsok bakarrik antolatutako ekitaldi guztiak bertan behera geldituko dira.

Beraz guztioi animatzen zaituztegu gurekin batera Aste Nagusi herrikoi eta partehartzaile defendatzen. Eta non, noiz eta nola egingo dugu hori? Ba argi dago: Aste Nagusian, Marijaia-ekin batera, 29 konpartsekin batera, jaiarekin, disfrutatzen eta gure koloretako Bilbo maitagarriari eutsiz!

Konpartsen ekitaldiz beteriko Aste Nagusia



Jai Batzorde Mistoaren programa ofizialaz gain, Bilboko Konpartsak federazioak hainbat ekitaldi antolatzen ditu Aste Nagusian. Ezagunen artean, dudarik gabe, Lehiaketa Gastronomikoa eta Hiri Krosa daude, baina, orrialdeotan ikusiko dugunez, askoz gehiago dira Bilboko Konpartsek aste honetarako programatu dituztenak... Ez aipatzeagatik konpartsa ba-koitzak bere txosnan egunero an-

tolatzen dituenak. Batzuen zein besteen gaineko informazio zabalagoa eta zehatzagoa aurkituko dugu bilbokokonpartsak.com webgunean.

Egun bat jai eremutik pasatzeak gauza asko egiteko aukera eman dezake. Txosnetan mota guztietako leihaketak topatu ditzakegu, itsusiena barne, antzerki taldeekin, kale animazioa, umeentzako puzgarriak eta tailerrak, igela, ti-

ragomak, mus txapelketa, antzerkiak eta kale saioak, honda taile-rra, eta, zelan ez, musika mota guztietako kontzertuak, txiki-entzako eta nagusientzako, eta ezin ahaztu txosnetako giroa, pote, ogi-tarteko, musika eta konpartsakideen animazioagaz.

Hiri Krossa eta Piragua Zeharkaldia

Bilboko Konpartsek antolatutako

kirol proben artean nabarmentze-koa da Hiri Krossa, urtero milaka korrikalari biltzen dituen. Aurtengo XIV. edizioa ostiral arratsaldean izango da eta izen-ema-tea www.bilbokokonpartsak.com webgunean egiten da. Luzera ez-berdineko hainbat ibilbide izango dira: 18 urtetik gorako herritar eta federatuentzat 6.000 metro; gur-pildun aulkietarako 3.000 metro; 12 eta 17 urte bitartekoentzat

1.500 metro eta 11 urtera arteko haurrentzat 700 metro.

Webguneko izen-emate bide bera du Ibaizabaleko II. Piragua Zeharkaldiak, ostiral goizean Sestao eta Bilbo artean dagoen 11.600 metroko distantzia beteko duena.

Bilbo Kantari eta Triki-Bertso kalejira

Hainbeste "bilbainada" tartean euskal kantutegiaren falta somatzen dutenentzat sortu da Bilbo Kantari ekimena. Gero eta lagun gehiago biltzen dira euskarazko kantuak plazaratzen diren ekimen honetara. Errondan aterako gara asteartean, ostegunean eta larunbatean, beti 20:00etan, jakin badakigu, hala ere, asteartean Freddy Mercuryrena zirudien zantzoa larunbaterako Joaquin Sabina-aren ahots urratua bihur daitekeela.

Kale ibilaldiko planteamenduan ere, astelheanean Triki-Bertso kalejira izango dugu. Bertan, trikitalari eta bertsolariak zazpi kaleetan barrena ibiltzen dira, txikiteo alaian, megafonia eramangarri bategi lagunduta, biribilketan eta bertsotan.

Ekintza biziagoak: Aerobithoia, kukaña

Aerobithoia astelheanean 17:30ean egiten da Areatzako kaian. Jaietako lehen asteburua gogorra egin bazaizu, ez dago kirol pixkat eginda litroka izerdiztea baino gauza hobeagorik! Itsasadarreko ur ilunekiko kontaktuari beldurrik ez dionarentzat, astelheanean 17:00etan kukaña edo nasapuntako jokoa izango dugu Areatzako kaian, Txinbotarrak eta Altxaporru txosnen artean. Hau, dudarik gabe, itsasadarren ertzetan lagun gehien biltzen dituzten ekimenetakoa da: koipeztuta dagoen bost metroko masta baten gainean ibiliz, muturrean dagoen banderaxoa harra-patu behar da irabazteko.

Igel-toka, tiragoma, xakea eta musa

XII. igel-toka txapelketa astelhean eta asteartean izango da, 11:00etan, Arriaga parean. X. tiragoma txapelketa, berriz, ostegunean ordu eta leku berean.

Mus txapelketa, 8 errege eta 8 batekorekin, abuztuaren 24an izango da Areatzan, 15:00etatik aurrera. Orduan, izen-ematea itxi eta gero, partidaren zozketa egingo da.

Xakeari dagokionez, astelheanean aldi berekoak izango ditugu; asteartean xakea itsuan eta antixakea (fitxa-pasa); ostegunean partida azkarren banakako maratokia izango dugu; ostiralean Aste Nagusiko





roletan erreko ditugu kaloriak eta baita gure azken indarrak ere.

Bestelako ekitaldiak

Abuztuak 21, larunbata
20:00 Txosnen irekiera Marijaia-rekin

Abuztuak 22, igandea
11:00 Areatzan. Okela errea eta bildoski banaketa, Ahtletic-en peñak eta Bilboko Konpartzak elkarlanean.

18:00 Areatzako kioskoan. Txalaparta festa. Aurten, zati bi edukiko ditu euskal instrumentu honen inguruko jaiak: goizean umeentzako txalaparta tailerra eta, arratsaldean, flamenkoa, bertsoak eta txalaparta bateratuko ditu.

Abuztuak 26, osteguna - mozturro eguna

11:30 Areatza. Txupinaren omeztuko txupina

14:30 Esperantzako frontoian. Jubilatuen bazkaria

Abuztuak 28, larunbata

12:00 Areatza. Ardo dastaketa

Informazio gehiago Interneten

Aurten webune berria jarri dugu abian. Bertan, egitarau honen azalpen zehatzagoa aurkituko duzue, egunez egun, konpartsen federazioak ezezik konpartsa bakoitzak antolatu dituen ekintza guztiak aurkituko dituzue.

Gainera, albistek, egunez eguneko kronikak, argazkiak eta bideoak aurkituko dituzue webgunean, baita gure Facebook orrialdea eta Twitter eguneraketak ere. Bisitatu:

www.bilbokokonpartzak.com

partida azkarren XIV Txapelketa izango dugu. Azken larunbatean, berriz, Xake Aktiboko Nazioarteko XI lehiaketa irekia izango da.

Jaitsiera ekologista

Nerbioiaren jaitsiera ekologista Bizizaleak konpartzak jaietan urtero antolatzen duen ekimen ludiko-didaktikoa dugu. Ostiralean izango da, 17:30ean, Santurtzira-raino trenetz jaitsita eta, ondoren, motor batean itsasadarrean gora eginez.

Haurrentzat

Txikienek goizero izango dute zereginik: txalaparta tailerra igandean, nekazaritza ekologiko tailerra astelehenean... Lehiaketa gastronomikoaren eskutik patata tortilla eta taloa egiten ikasiko dute asteartean eta ostegunean, hurrenez hurren. Asteazkenean, plantoaren egunean, konpartsek esku hartuko duten ekitaldi bakarra Bartsutuko ospitaleko haurrei bisita egitea izango da, zirkoarekin eta Marijaiarekin joango baikara.

Txosnetan

Konpartsa bakoitzak, gainera, bere txosnarako egitarau propioa osatu ohi du eta, egia esan, denetarik aurki dezakegu: herri bazkariak, haur eta helduentzako tailerrak, musika estilo ezberdinetako kontzertuak, eskalada, karaokea, strip-tease-a, antzerkia, ipuin kontalariak, txokolatadak, magia saioak, lehiaketak, poteoak, olinpiadak, bertsolariak, puzgarriak, txotxongiloak, pailazoak, abestiak, jokoak, dantzak, batukada,

flashmob-a, queimada, kalejirak, playback-a, transformismo ikuskizunak, txitxiburduntziak...

Konpartsen artean

Itsasadarreko urak, berriz ere, konpartsen arteko lehia leial eta zikinaren lekuko izango dira. Ur joakoak ostiralean izango dira, 18:00etan, Uribitarte parean. Larunbatean 17:30 inguruan, Areatzan egingo dugun konpartsen bazkariaren eta bazkalostearen ondoren, konpartsen arteko herri ki-



Lehiaketa Gastronomikoa

Ondo jatea berez jaiarekin bat datorren ohitura dugu Bilbon. Horregatik Lehiaketa Gastronomikoa ezinbesteko hitzordua dugu gure artean dauden ehunka sukaldari amateur eta txokeroentzat, baita zerbait ikasi nahian dabilzantentzat ere.

Aurten sei lehiaketa izango dira (asteazkeneko plantoa dela eta, ez baita txipiroiak beren tintan lehiaketarik egongo): patata tortilla, makailaoa Bizkaiko erara, Bilboko kroketa, makailaoa pil-pilean, marmitakoa eta buztan gisatua, hurrenez hurren.

Lehiaketa Gastronomikoaren arauak:

- Sei lehiaketak goizez izango dira. Platerak 13:00etan aurkeztu beharko dira, ordutegitik kanpo aurkeztuz gero, deskalifikatuak izango dira.
- Gisatu guztiak ikuslegoaren aurrean egingo dira.
- Etxean aldeztetik eginiko zerbait erabiltzekotan deskalifikatuak izango dira.
- Izen-ematea Areatzan bertan izango da, egunero 9:00etan.
- Gasa, ikatza edo egurra erabiliz gisatu daiteke.
- Ez da adituentzat antolatutako txapelketa.
- Patata tortilla, Txipiroiak bere tintan eta Makailaoa Bizkaiko erara

- egun horretan puntuatuko dute barrik, ez dute azken sarirako balio.
- Makailaoa Pil-Pilean, Marmitakoa eta Buztan Gisatua platerak eguneko sarirako puntuatzeaz gain azken sarirako ere balio dute.
- Lehiaketan sartzeko platerak gutxienez 4 zati (anoa) izan behar dituzte, patata tortilla izan ezik.
- **Makailuaren Jauna:** Makailaoa pil-pilean eta Makailaoa Bizkaiko erara bi modalitateen arteko puntuaziorik altuena lortzen duena.
- **Kantauri Itsasoaren 3. Marmitako Bandera:** Puntuaziorik handiena, bai indibidualarena eta baita konpartsen ere.

SUKALDARITZA LEHIAKETA CERTAMEN GASTRONÓMICO 2010

Aste Nagusia Semana Grande

- 24 Patata Tortilla Tortilla de Patata
- 25 Makailua Bizkaiko Erara Bacalao a la Bizkaína
- 26 Bilboko Kroketa La Croqueta de Bilbao
- 27 Makailua Pil-Pilean Bacalao al Pil-Pil
- 28 Marmitakoa Cpto. Euskal Herria Marmitako
- 29 Buztan Gisatua Guisado de Rabo

Autotzatuzkoak Organizatzaileak

Bilboko Konpartzak

Lehiaketa Zuzendaritza Director del Certamen: Kepa Peñe
Aukerakoa Presentatzaile: Joni Antonio Bartzigala "Bartzi"

Bilbao
Coca-Cola
IKK
Ercoreca

Bilboko Konpartzak

Berriz erabiltzeko edalontziak Aste Nagusian

Ingurugiroaren aldeko apustua egin dugu Bilboko Konpartsek aurten. Aste Nagusian sortzen diren hondakinak gutxitzea hartu dugu helburutzat eta, horretarako, aurten berriro erabil daitezkeen edalontziak izango ditugu, orain arte geneuzkan erabili eta botatzeko edalontzien ordez.

Denok nahi dugu jai eremu garbi eta atsegina baina, egunak aurrera egin ahala, zaborra bazter guztietan pilatzen da. Iazko Aste Nagusian 500 tona zabor baino gehiago bildu ziren eta garbitzeko ur eta garbikari kopuru handiak erabili

ziren. Bilboko Konpartsetan ziur gaude berriro erabiltzeko edalontziak jaietako garbitasuna hobetuko dutela.

Konpartsek gonbita egiten dizuegu edalontzi hauek jai eremu barnean zein kanpoan erabiltzeko. Zehatzago esanda, proposatzen dizuegu berau jaietan gaudela erabiltzea eta atxikitzea, aste osoan zehar erabiliz. Txosnetan euro baten truke aurkituko dituzue edalontziok, baita hauek eroso eramateko gomazko euskarria ere. Erreza izango da norberaren edalontzia zein den gogoratzea,

kolore ezberdinetakoak baitira. Gainera, jendeak dagoeneko erabili nahi ez dituen edalontziak bilduko ditugu txosnetan.

Berriro erabiltzeko edalontzien ezarpena gure apostu irmoa da. Badakigu hau aldaketa dela eta ahaleginduko gara ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko. Denon artean lortuko dugu aurki edalontzi hauek guztiz normalak izatea eta ingurugiroa errespetatuko duen Aste Nagusi garbiagoan gozatu ahal izango dugu.



Aratz Irazabal txupinerari elkarrizketa



Aste nagusia bakarra dago hamar gaueko munduan...

Gure Aste Nagusia berezia da benetan, mila gauza daude egunero egiteko, oraindik jai batzorde mistoa daukagu, 78 an sortua, gaur egun daukagun jai eredia da Bilbotarrok nahi dugun eredia. Parrandaz egoteko jairik onenak dira, hemen daukagun giroa beste inon ez dagoelako, eta niretzat hainbeste gustatzen zaizkidan jaietako txupinera izatea ohore handi-handia da.

Abuztuan denok zahar eta gazte, gizon eta andre jaietan...

Aste Nagusiaren berezitasunik handiena da jendearen parte-hartzea, guztiok gauza guztietan parte hartu dezakegu, eta ez konpartseroek bakarrik. Bilbora etortzen den jende guztiak, udalak eta konpartsek prestatzen dituzten aktibitate guztietan parte hartu

dezake: gastronomikoetan, txikigunean, antzerkietan, kontzertuetan, txosnetan, alde zaharreaan...

Zapia lepoan alkar hartuta kolore guztiak dantzetan...

29 konpartsa ditugu, guztiak desberdinak, guztiok desberdin pentsatu egiten dugu, baina egiten dugun elkarlana da urtero Aste Nagusi aparta izatea posible egiten duena.

Urte osoan zehar lan handia egiten dugu, eta ez dugu Aste Nagusian bakarrik parte hartzen, inauterietan eta Santomas egunean ere parte hartu eta prestatu egiten dugu.

Gure helburua da jai onak eta herrikoiak egitea, guztiok oso ondo pasatzeko, eta kriston parranda antolatzea guztiok disfrutatzeko.

Marijaia bera gure Marijaia, Bilbora etorri da Aste Nagusira...

Urduritasun handiko eguna da, baina jaietarako gogoak nabaritzen dira, eta prest egon behar naiz bederatzi egunetan guztia emateko. Baina benetan betirako gogoratuko dudana da, txupina botatzerakoan eta abestia entzuten denean, balkoitik milaka pertsona ikusiko ditudala saltoka eta jaietarako prest!

Aste Nagusi bakarra munduan bakarra munduan Marijaia...

Gure Aste Nagusia bakarra, eta jai eredu parte-hartzailea izaten jarraitzeko guztion artean gure Aste nagusia defendatu behar dugu, horregatik aurtengo Aste nagusia berezia izango da. Ea holan hurrengo Aste nagusiak betiko moduan izaten diren eta munduan bakarrak izaten jarraitzen duten!

Gora Aste Nagusia eta Gora Marijaia!!!

Erasoen aurkako protokoloa

Emakumeek jai eremuan jasandako erasoen aurkako protokoloa jarriko dute abian berriro konpartsek. Protokolo honek eraso fisiko edota sexualen kasuetan biktimak artatzeko prozedurak eta eman beharreko urratsak xedatzen ditu. Laguntza behar duten emakumeek txosnarik hurbilenera jo

dezakete eta, behar izanez gero, konpartsera batek lagunduko dio ospitalera edo guardiako epaitegira. Edozein modutan, 94 470 14 60 telefonora deituta ere biktima artatuko dute eta ondorengo eginkizunak abian jarriko ditu Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzuak.

Bilboko Konpartseak
www.bilboko-konpartseak.com

Aste Nagusian emakumeon kontrako erasorik ez!!

Ninguna agresión contra las mujeres en Aste Nagusia